


INGURUNeko HAZKUNDEA

Bilakaera kontrajarriak ekonomia eremu nagusietan

Txinako BPGa


Urte arteko aldakuntza tasak



Txina %6,7 hazi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan. Tasa hori aurreko bederatzi hilekoetan eskuratutakoa baino zertxobait apalagoa da. Moteltze arin horren atzean, esportazioen bultzada txikiagoa dago, nahiz eta AEBekin duen arantzel gerra ez zen uztaila arte hasi, eta baita kredituaren garestitzea ere, inbertsioa eta industria ekoizpena lastatu baititu. Hala ere, munduko bigarren ekonomia oraindik oso portaera egonkorra erakusten ari da.

Manufakturen PMI indizea. Txina

Urte arteko aldakuntza tasak



Txinako esportazioak.

Urte arteko aldakuntza tasak



AEBetan, lan merkatua enplegu beteko egoeran dago, bertako langabezia tasa bigarren hiruhilekoan %3,9an zegoelako. Orobat, soldatek gora egin dute eta konfiantza berreskuratu da. Aurreko guztiak kontsumo pribatuaren beste gehikuntza bat ekarri zuen. Halaber, esportazioak sendo hazi ziren, Txinara doazen soja bidalketak aurreratu zirelako, nekazaritzako produktuen gaineko arantzela indarrean sartu baino lehen. Azkenik, gastu publikoa ere handitu zen. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia estatubatuarra %2,9 hazi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan, azken hiru urteko emaitzarik onena baita.


AEBetako taula makroekonomikoa

	2017	2017 II	2017 III	2017 IV	2018 I	2018 II
BPG	2,2	2,1	2,3	2,5	2,6	2,9
Kontsumo pribatua	2,5	2,5	2,4	2,7	2,4	2,6
Inbertsio pribatu gordina	4,8	4,5	6,8	5,0	6,2	4,8
Kontsumo eta inbertsio publikoak	-0,1	0,1	-0,4	0,1	0,7	1,3
Esportazioak	3,0	2,7	2,1	4,7	4,3	5,7
Inportazioak	4,6	4,6	4,1	5,4	5,0	4,2

Iturria: BEA, Txinako Estatistika Erakundea eta Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta Mineco.

Europar Batasuneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa

**Erresuma Batuko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eurostat .

Txanponaren ifrentzua Europar Batasunak eskaini zuen. Eurostatek bigarren hiruhilekorako zenbatetsi duenez, BPGa hirugarren hiruhilekoz jarraian moteldu zen. Zehazkiago adierazita, kontinente zaharra %2,2 hazi zen, 2017ko lehen hiruhilekotik izan duen gorakadarik txikiena baita. Bizitasun txikiago hori ekonomia nagusietara hedatu zen. Izan ere, ekonomia jarduera %1,9 areagotu zen Alemanian, lehen hiruhilekoan lortutako %2,0aren aldean. Frantziak, berriz, lau hamarren galdu zituen eta %2,1 hazi zen. Azkenik, Italiak bi hamarrenetan murriztu zuen bere tasa, %1,2ra arte. Salbuespena Erresuma Batua izan da. Hiru hiruhilekoz etengabeko moteltzea pairatu ondoren, non ematen baitzuen Brexita ondorio kaltegarriak izaten hasia zela, zertxobait suspertu zen, %1,3 arte.

Espainiar ekonomiak erritmo onean hazten jarraitu zuen, baina lehen aldiz hiru urteko epean %3,0 baino gutxiago hazi zen. Kontsumo pribatuaren bultzada txikiagoa inbertsio handiagoak konpentsatu zuen, bereziki makinerian eginikoak. Horri esker, barne eskariak 2,9 puntu ekarri zizkion hazkundeari. Kanpo arloak, berriz, bi hamarren kendu zizkion jarduerari. Beraz, BPGa %2,7 hazi zen. Enplegua %2,5 areagotu zen, aurreko emaitza baino hamarren bat gutxiago. Dena dela, lanaldi osoko 448.000 lanpostu garbi sortu ziren.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE .